



Euskararen kronologia erlatiboa finkatzeko lehen hurbilketa

Urtzi Reguero Ugarte

► To cite this version:

Urtzi Reguero Ugarte. Euskararen kronologia erlatiboa finkatzeko lehen hurbilketa: Euskararen kronologia erlatiboa finkatzeko lehen hurbilketa. 2010. artxibo-00492926v1

HAL Id: artxibo-00492926

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00492926v1>

Preprint submitted on 17 Jun 2010 (v1), last revised 22 Jun 2010 (v3)

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Euskararen kronologia erlatiboa finkatzeko lehen hurbilketa

Urtzi Reguero Ugarte

EHU-UPV

*Dana kanbiatzen juten da
gauza guziya bezelaxe*

Zizurkilen 75 urteko andre batek esana
2009/02/03

Aurkibidea

0. Sarrera.....	2
I. Atala.....	2
1. Sarrera.....	2
I.1. Fonologia Sortzailea.....	3
I.2. Estrukturalismoa.....	6
I.3. Hizkuntzalaritza Historikoa.....	7
II. Atala.....	12
2. Sarrera.....	12
1.1. Euskararen kronologia erlatiboa.....	13
1.1.1. Ikergaiaren egoera.....	13
1.1.2. Euskararen kronologiarako ekarpena.....	16
n > h.....	16
N > n.....	19
Grassmannen legea, $h_3 > h_1$ eta $h_2 > h_1$	20
<i>*L > l</i> eta <i>*l > r</i>	22
Eta beste.....	24
1.1.3. Amaiera.....	27
III. Bibliografia.....	28

0. Sarrera¹

Lan honek² euskararen kronologia erlatiboa bat egiteko oinarriak finkatzeko saiakera teoriko eta praktikoa bat izan nahi du. Traskek (2000:45) azaltzen duenez, edozein hizkuntzaren kronologia erlatiboa finkatzea berreraiketan egin daitekeen pausurik handiena da. Euskararen kasuan, (amaieratik, inon bada behintzat) urruti gaude oraindik, baina kronologia egiteko materiala (eta beharra) badago.

Bi zati nagusi ditu lan honek; lehenengo zatian kronologia erlatiboaren alderdi teorikoaz arituko gara gehienbat; bilakabide zein erregelen kronologiaz aritu diren hiru korrontek esan dutena laburbilduko dugu: Fonologia Sortzailea, Estrukturalismoa eta Hizkuntzalaritza Historikoa. Azken honekin gehixeago luzatuko gara.

Bigarren zatian euskararen kronologiari jarriko diogu arreta, euskaralaritzaren historian egin diren kronologia erlatibo zenbait, orokorrak zein fenomeno konkretuei dagozkienak, laburbilduko ditugu. Atal honekin amaitzeko, euskarazko hainbat bilakabideren kronologia erlatibo eta absolutuak proposatuko ditugu. Ez gara, ordea, mailegu bakoitza zein garaitan sartu zen eta sar zitezkeen esaten hasiko, bilakabideen hurrenkera eta ahal denetan data emango dugu soilik.

I. Atala

1. Sarrera

Esan beharrik ez dago hizkuntzek denboraren poderioan aldaketak jasaten dituztela. Aldaketok, ordea, ez dira edozein garaitan edozein modutara ematen. Aldaketa bakoitza garai konkretu batean gertatzen da, beraz, aldaketa batzuk beste batzuk baino lehenago edo hauen ondoren gertatuko dira. Kronologia erlatibogileen lana aldaketok zein hurrenkeratan gertatu diren zehaztea litzateke, ahal den neurriak behinik

¹Lana hau Eusko Jaurlaritzak 2009-2010 emandako Lankidetzak Bekari esker egin da Joseba Lakarraren zuzendaritzapean

²Bihozkio eskerrak Joseba Lakarrari lan hau zuzentzeagatik. Bai halaber lan honekiko intesera erakutsi didaten guztiek, zuek badakizu nor zareten.

behin. Campbellek dionenez (1998 [2004]: 46), fonologia historikoaren lanetako bat³ langai duen hizkuntzaren kronologia erlatiboa finkatzea da. Baina ez soilik fonologiarena, morfologia historikoarentzat ere aldaketa fonologiko zein morfologikoen kronologia erlatiboa tresna beharrezkoa da.

Finkatze honetan onartu beharreko printzipio nagusia aldaketen erregularitasuna da, hau da, hots aldaketak erregularrak dira eta salbuespenik gabeak (honetaz, ik. esaterako, Hock 1991). Honekin ondorioztatzen dena da kronologia erlatiboa finkatzea estuki loturik dagoela neogramatikoekin (Pensado 1983: 15).

Egia da beste zenbait hizkuntzalaritza korrante, estrukturalismoa eta fonologia sortzailea bereziki, aritu izan direla kronologia erlatiboaz eta erregela-ordenaz. Hain zuzen ere, Pensadok dioenez (1983:55) fonologia sortzailea da azken urteetan kronologia erlatiboari ekarpen handiena egin diona, nahiz eta hasiera batean fonologia sinkronikoaren gaineko teoria bat egin nahi zen. Nolanahi ere, praktikan ezer gutxi egin dute estrukturalismoak edo fonologia sortzaileak. Hara zer dioten Pensadok honetaz (1983: 45):

“No se puede decir que el método estructural haya conseguido elaborar una cronología relativa de ninguna lengua romance (lo más cercano es Magnusson 1973), de la misma forma que no la ha producido la fonología generativa”

Lanarekin jarraitzeko, eskola bakoitzak kronologiaz esan duena laburbilduko dugu; informazio gehiena Pensadoren (1983) lanetik atera dugu, baina beste zenbait iturri ere erabili ditugu lana osatzeko:

1.1. Fonologia Sortzailea

Pensadoren (1983:55) arabera, azken urteetan kronologia erlatiboari ekarpen gehien egin dion korrantea izan da fonologia sortzailea, nahiz eta fonologia sinkronikoa egiteko helburua izan hasieran.

³ Baina ez fonologia historikoarena soilik, morfologia historikoan ere oso baliagarria da.

Hizkuntzalaritza sortzailearen ikuspuntutik, giza hizkuntza erregelek zuzentzen dute, erregela hauek lirateke sakoneko egiturako formak azaleko egiturako forman bilakatuko lituzketenak.

Forma batek sakoneko egituran lukeen itxura zein den ezagutzeko azaleko egiturako formak sinkronikoki dituen aldaerak konparatuz egiten da, hau da, aldaera morfofonologiko guztiek luketen jatorrizko forma komuna bilatu nahi da, horretarako zenbait erregela eta hauen ordena ahalik eta sinpleenak eta ekonomikoenak proposatzen dituzte (honetaz, ik., esaterako, J.M. Anderson 1973 [1977]:307)

Hona hemen Traskek (1996 [2007]:113) fonologia sortzaileaz dioena:

“In this view, [70. eta 80. hamarkada hasierako fonologia sortzailea] the phonology of a language consist of a set of distinctive features, certain permitted combinations of which make up a group of segments which are the (underlying) phonemes of a language, plus a set of phonological rules which apply in some order to the underlying forms of particular words in order to produce the surface phonetics forms. In this view, most phonological changes are seen essentially as changes in the phonological rules”.

Fonologia sortzailean maiz erabiltzen den kontzeptua da erregela-ordena (rule-order). Gramatika bakoitzeko erregelek, bere forma eta ordenamentuari dagokionez, murriztapenak dituzte (J.M. Anderson 1973 [1977]:307), ez dira nolanahi gertatzen. Hizkuntza bateko erregelak modu ordenatuan aplikatzen dira eta ziklo bakar batean behin bakarrik gerta daiteke erregela. Hala ere, zilegi da zenbait erregela bata bestearen atzetik aplikatzea inolako hurrenkera fijos gabe, beti ere testuinguruak onartzen duenean; aukera honi *random order* deitu ohi zaio fonologia sortzailean; *random iterative order* delakoak, ordea, erregela batek bestea blokeatzea galaraziko luke, baina ez luke testuinguruaren errepikapena behartuko, hurrenkera jakin honek ez luke erregela murriztapenik eskatuko.

Bi erregela hartuta, jakin daiteke elkarren artean erregela-ordenik badagoen, hemendik abiatuta, Kiparskyk (1968b) erregelen elkarreragin motak sailkatu zituen⁴:

⁴ Emandako hitz hauek jatorriz fonologia sortzailekoak badira ere, gaur egun beste korranteek ere erabiltzen dituzten.

- *Feeding*: erregela bat aplikatzeak beste erregela gertatzeko inputak sortzen ditu.
- *Bleeding*: erregela bat aplikatzean bigarren erregela gertatzeko inputak murrizten dira.
- *Counterfeeding*: erregelak aurkako ordenean aplikatuko balira, feedinga sortuko litzateke.
- *Counterbleeding*: erregelak aurkako ordenean aplikatuko balira, bleedinga sortuko lukete.
- Axola ez duena⁵: erregelek elkar eragiten ez badute⁶.

Fonologia sortzailarentzat hizkuntz aldaketetako bat erregelen-ordenaren aldaketa litzateke.

H.H.Hockek (1991:642) zehazten duenaren arabera, hizkuntzalari sortzaileek hizkuntza aldaketari buruz egiten dituzten baieztapenak ez dira neogramatikarien doktrinetatik urruntzen, baizik eta hauen luzapentzat har daitezke oro har. Desberdintasun nagusia, ordea, hemen dago: hizkuntzalari sortzaileek hots-aldaketa gramatika sortzailean barnean kokatu nahi dute eta aldaketak erregela-gehiketa baten ondorio gisa hartu; erregela sinkronikoek, ordea, aldaera sinkronikoak behar dituzte, baina hots aldaketa fenomeno diakroniko bat da eta kasu batzuetan bakarrik sor ditzake aldaera sinkronikoak. Hizkuntzalari sortzaileak eragozpen hau konpontzen ahalegindu dira esanez hots-aldaketak hautazkoak diren erregelek eragiten dituztela eta erregelok hizkuntz modaren arabera erabiliko direla, baina ondorengo belaunaldiek hautazkoa zen erregela hau nahitaezkozat hartuko lukete. Pensadok (1983:60) ere, fonologia sortzailearen eta kronologia erlatiboaren arteko konparaketa bat eginez, esaten du bien arteko batasuna biek ezarri nahi duten ordenean dagoela; lehenak erregela fonologikoena, bigarrenak aldaketa fonetikoena.

⁵ Harreman mota hau izendatzeko izen ezberdinak erabili izan dituzte hizkuntzalariek: *Indiferente* (Pensado 1983), *A does not affect B* (Iverson, 1995) *mutual unaffacting* (Lass, 1997)

⁶ Hauen adibide konkretu zenbait ikusteko, ik. Iverson 1995.

1.2. Estrukturalismoa

Estrukturalismoak berreraiketa kronologikoa egiteko zeunden aukeretan eragina izan zuen aldaketa-teoria berri bat plazaratu zuen (Hoenigswald 1960 eta Kuryłowicz 1962, 1973.).

Estrukturalismoak ekarritako oinarritzko kontzeptua hizkuntza baten alderdi fonetikoa egoera sinkroniko batean defini daitekeen oposizio fonologikodun sistematizat hartzea izan da. Korrante honetan, fonologia historikoa sistema batetik besterako hizkuntza baten bilakabidea nolakoa izan den aztertzen du; haxe gence euskararen historiari dagokionez, Martinetek (1955) eta Mitxelenak (1957) egin zutena. Ikuspuntu honen arabera, metodo honekin aldaketa fonetikoaren tipologia bat egin daiteke.

Oro har, fonologia historikoa aldaketen azalpen funtzionala emateaz eta berreraiketen plausibilitate tipologikoa aztertzeaz arduratzen da. Ikuspuntu estruktural honen arabera, aldaketa fonologikoa aldaketa fonetiko batek edo batzuk sisteman izandako eraginaren ondorioa da. Hemendik bi ondorio atera genitzake: 1. kasu guztietan analisi fonologikoa bakarra bada, ezin daiteke aldaketa fonologikorik egon lehenago aldaketa fonetiko bat ez bada gertatzen. 2. Aldaketa fonologiko bat eman dadin, batzuetan beharrezko izango dira bi aldaketa fonetiko gertatzea. Aldaketa fonologiko batek bi aldaketa fonetiko berreraikitzen lagunduko du eta batzuetan beren kronologia ere bai.

Beraz, aldaketa fonologiko batzuk gerta daitezten, beharrezko izango dira bi aldaketa fonetiko gertatzea. Hau oposizio berri bat sortzen denean gertatzen da. Oposaketa fonologikoa izan dadin, beharrezkoa da lehenik alternantzia alofonikoa egotea eta gero alternantzia eragin duen testuingurua desagertzea.

Estrukturalismo funtzionalistaren arabera, sistemak berak azalduko lituzke aldaketak. Ahalik eta oposizio gutxien erabilita sistema batek ahalik eta ekonomikoena izateko joera izango luke. Hizkuntzalari zenbaitek ikuspuntu hau kritikatu izan dute,

hauen arabera, aldaketen eragilea sistema bada, ez dago justifikazio estrukturalik aldaketak hurrenkera konkretu batean agertzeko.

Dena dela, aldaketaren ikuspuntu estrukturalistak proposatutako bi kontzeptuk ekarpen garrantzitsua egin dio hizkuntzalaritza historikoari: *katea-bultzatzailea* eta *katea-erakarlea*.

1.3. Hizkuntzalaritza Historikoa

Egin izan diren kronologia erlatibo ia guztiak ikuspuntu neogramatikotik egin dira. Nolanahi ere, kronologia erlatibogileek maiz azpimarratzen dute gramatika historikoak ez daudela kronologikoki ordenatuta. R. Lassen (1997:241-242) arabera, konparaketak eta barne berreraiketak egitean historia kontuan hartu ez izana da kritika honen arrazoia, egokitasunak edo korrespondentziak egitean ez dute benetako historiarik egiten.

Jakina denez, gramatika historikoak, edo hizkuntzalaritza historikoak, hizkuntzaren aldaketak aztertzen ditu. Aldaketok denboran zehar (eta ez gramatika sortzailean bezala barneko egituratik azaleko egiturara igarotzean) gertatzen dira, hizkuntzaren bilakabide diakronikoan. Beraz, bilakabideak denboran kokatu behar dira. Horrela, bilakabide batzuk denboran beste batzuk baino lehenago edo beranduago gerta daitezke.

Hizkuntzaren baitako bilakabideak bere garapen historikoan gertatzen direnez, denbora konkretu (batzuetan luzeago, laburrago bestetan) gertatuko direla onartu beharrean gaude. Bilakabideak ordenatzeko, hau da, kronologia finkatzeko orduan, bi kronologia ezberdin erabili ohi dira: kronologia erlatiboa eta kronologia absolutuak. Hauen definizioak Pensadok berak ematen ditu (1983:14):

Kronologia absolutuak bilakabide bakoitza noiz gertatu den datatzen du. Datatze hau egiteko filologian oinarritzen da, hau da, lekukotasun idatzian. Beraz, kronologia absolutua hizkuntzaren historia hasi ondoko garaitik aurrera finka daiteke. Dena dela,

historiaurrean edo protohistorian gertatutako zenbait bilakabideren gutxi gorabeherako data absolutuak finka genitzake aztergai dugun hizkuntzaren inguruko hizkuntzak aztetuta. Demagun onartzen dugula Gaskoiak $n > \emptyset$ euskarazko sustratuaren bidez egin duela eta bilakabide a V. Menderako emana zela (Chambon & Greub, 2002), beraz, euskaraz IV. mendea baino lehenago gertatu behar izan zuen.

Kronologia erlatiboa, aldiz, ongi definitutako erregela fonetikoetatik abiatuta finkatzen da. Behin erregelak ondo zehaztu direnean, hauen arteko elkarreragina nolakoa izan den ezagut daiteke. Euskararen adibide batetik errazago ulertuko dugu. Onartzen badugu euskararen (a) $*L > l$ eta (b) $*l > r$ bilakabideak eman direla, onartu behar dugu erregela edo bilakabide bat bestea baino lehenago gertatu dela: (b)k lehenago gertatu behar izan du eta (a) erregela hasterako agortua egon behar du; bestela bortitz batetik letorkeen $l > r$ bihurtuko bailitzake. Ez denez hala gertatzen, hurrenkera honakoa dela proposatzen dugu:

1. $*l > r$
2. $*L > l$

Maiz, bereziki hizkuntzalaritza erromanikoan, kronologia erlatiboak kronologia absolutuekin batera erabili izan da, bilakaera jakin bati buruz eskura dauden datuak erabiliz, beste bilakabea lehenago edo geroago gertatu den zehazten da. Hizkuntzalaritza erromanikoko metodoa aintzat hartuta egiten du Guiterek ere euskararen kronologia erlatiboa. Dena dela, kronologia absolutua ez da arazorik gabekoa, izan ere, lehen lekukotasunetan bilakabide bat gertatua badago ere, ezin zehatz daiteke bilakabidea idatzi zen garaian gertatu zen ala lehenago gertatu zen; gainera, idazkera sistema, askotan, arkaizantea izan ohi da. Aldiz, hizkuntza idatzian berrikuntza sistematiko bat aurkitzeak, hizkuntzan berrikuntza gertatu dela adierazten du, beraz, lekukotasun idatzitik ondoriorik atera nahi bada, idazkeran egindako berrikuntzetan oinarritu behar da. Beraz, hizkuntzaren historian (zentzu hertsian) oinarriturik egin nahiko bagenu kronologia, etimologiaren laguntzarik gabe, hainbat arazo izango genituzke: batetik, corpora mugatua eta berantiarra izan daiteke euskararen kasuan bezala. Bestetik, Strakak berak (1953:1) ere aipatzen duen grafiaren arazoa, esan nahi baita, grafia

kontserbatzailea izanik, bilakabideren bat erakutsi balu ere, bilakabidea lehenago gertatua izan daiteke. Pensadok (1983:25) hainbat arrazoi ematen ditu lekukotasun idatziak kronologia finkatzeko dituen arazoak erakusteko⁷.

1. Grafia bat fenomeno fonetikoa gertatu eta hainbat mendera has daiteke erabiltzen. Esaterako, Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako testu zaharretan afrikatu / frikari bereizketa ez zen erakusten 1571ra arte, Leizarragak izan zen lehena bereizten. Baina, afrikatu / frikari oposaketa euskaraz askoz lehenagotik zegoen, antzieuskaratik bertatik gutxienez.
2. Grafia batek ahoskeran ez den desberdintasun bat erakus lezake. Euskaraz, esaterako, grafikoki, <v> eta idatzi izan dira, nahiz eta berdin ahoskatu.
3. Grafia berak hots desberdinak adieraz litzake. Euskaraz, <c> grafemak herskari ahoskabe belarra edo frikari ahoskabe bizkarkaria adieraz lezake ondoko bokalaren arabera, egungo gazteleraz bezala.

Kronologia erlatiboa, berreraiketarekin estuki lotua dago eta berreraikitako horrengan konfiantza izan behar da. Aldaketen lekukotasunik ezean (baina bai gertatu direnaren zantzuak), aldaketen hurrenkera berreraiki ahal izango da aldaketa batek beste aldaketa bat gertatzeko *input*-a sortzen badu, hots, *feeding* erlazioa badago. *Bleeding* eta elkarreraginik gabeko harremana badago, anbigutasun tenporala sortzeko da (Lass, 1997:242).

Ez da, ordea, beti posible kronologia erlatiboak finkatzea. Badira kasuak, eta ez gutxi, non bilakabide batzuek ez duten elkar eragiten eta bata zein bestea lehenago gertatu, emaitza berdina izango den. Horrelako kasuetan ezingo genuke kronologia erlatiborik egin. Beraz, lekukotzen diren lehenengo alditik aurrera ordena daitezke. Arazo honi bi konponbide eman zaizkio: 1.- Gertatzeko aukera gehien izan duen garaian kokatzea, hau da kronologia erlatibo gehienek hautatu duten konponbidea. 2.- Bilakabideak inolako ordenarik gabe plazaratzea, hau da gramatika historikoek egiten

⁷ Adibideak guk emandakoak dira, Pensadok beste batzuk ematen baititu.

dutena. Beraz, esan genezake kronologia erlatiboak izatez ez direla osoak, osatugabeak direla.

Chenek (1976:209) erakusten duen bezala, protoformak berreraiki eta hizkuntzen historia egiteko, hainbat metodo erabili dira: 1.- Kanpo Metodoa (*External Method*), hau da, lekukotasun historikoak arreta handiz aztertzea, hizkuntzak egin dituen berrikuntzen daten aztarnak bilatzeko. 2.- Barne Metodoa (*Internal Method*), hau da, protoformen eta beren aldaera berrien arteko egokitzapen sistematikoak eginda gertatu diren aldaketa diakronikoak eta beren hurrenkera ondorioztatzea. 3.- Latitudezko berreraiketa, hau da, dialektoen edota hizkuntza cognatuen bidez eskura dugun materiala erabiltzea, aurreko bi metodoek agortu ez duten iturria.

Berez, hiru metodook modu egokian erabilita ondorio bera lortu beharko litzateke, baina tamalez ez da beti hala izan eta bi kronologia ezberdin edo gehiago lortu izan dira. Nolanahi ere, kronologia erlatibo egiantzekoena eta errealistena hiru metodoek modu independentean baieztatzen duena izango da (Chen, 1976:210).

Ikusi dugun bezala, hainbat modu ikusi ditugu bilakabide bat datatzeko, baina dagoeneko Strakak (1953: 1) adierazi zuen zaila dela bilakabide baten data jartzea, baita gutxi gorabeherakoa izanda ere. Orain arte zeharka baino aipatu ez dugun etimologiaz ere zerbait esan nahiko genuke. Esana dugu gorago kronologia erlatiboa estuki lotua dagoela berreraiketarekin. Berreraiketak eta hitzen etimologiak egitean beharrezko tresna da kronologia erlatiboa. Kronologia erlatibo ona nahi badugu, etimologia zuzen eta zehatzak egin behar dira. Azken finean, Alineik (1992) zehaztu bezala teknika honen bidez, hizkuntza bat (zeinnahi delarik ere) idatziz jarri aurreko garaiko ‘lekukotasunak’ lor eta ezagut daitezke. Etimologia bat zehatza eta zuzena bada, egungo hitz bat aurreko garai bateko beste batekin lotzeko baliabide bat ematen digu. Berreraikitako formen gainean proposatutako bilakabideen kronologia erlatiboa egiteko aukera ematen ditu, beraz, etimologiak. Hala ere, izarñodun formez ari garenez, berreraiketak ez dira behinbetikoak izango, ikerketa berriek, aurkikuntza berriek, lehen ezezagun ziren lekukotasunek... izarñodun hitzaren itxura alda dezakete eta honekin honentzat proposatu bilakabideak eta hauen kronologiak.

Ikusten dugunez, etimologia tresna indartsua bezain beharrezkoa da kronologia erlatiboa finkatzeko; etimologiarik gabe, ezin kronologia erlatibo oso eta zehatz bat egin, baina kronologia erlatiborik gabe nekez egin daitezke etimologia zehatz eta onak.

Etimologien antzera, bilakabideen hurrenkera kronologikoa finkatzeko, maileguek hizkuntza hartzailean izan duten egokitzapenek datu zenbait eta oso garrantzitsuak (askotan bakarrak) eman ditzakete. Maileguek hizkuntzan egokitu ondoren, hizkuntzaren beraren erregelak eta bilakabideak aplikatzen zaizkio, beraz, hitz mailegatua noiz sar zitekeen jakinda bilakabidea indarrean noiz egon zen jakin dezakegu. Era berean, hizkuntza bateko bilakabiderik erakusten ez badu maileguak, pentsa genezake mailegu hori hartu zen garairako erregela bukatua zegoela. Euskararen kasuan, latinetik hartutako mailegu ugariak bilakabide askoren berri ematen digute, baina kronologiarako oztopo bat da euskarak latinarekin eta geroko erromantzeekin izan duen etenik gabeko harremana. Izan ere, erromatarrak etorri zirenetik egun arte etengabeko kontaktuan egon dira euskara eta latina (eta geroko erromantzeak).

II. Atala

1. Sarrera

Mitxeleraren *Fonética Historica Vasca* hartuko bagenu, euskararen bilakabide diakronikoan gertatuko ehunka aldaketa aurkituko genituzte. Baina aldaketok ez dira kronologikoki ematen. Halaber, azken hamarka honetan, batez ere 1995etik hona, nabarmen egin du aurrera euskal hizkuntzalaritza diakronikoak. Haasek (1969, *apud* Lakarra, 2006) proposatutako lau bideetatik⁸ lehen erabilia, hau da, eskura dagoen materiala beste modu batera aztertuta (honetaz sakonago, adibidez, Lakarra 2006a, 2006c). Mitxelenak 50. eta 60. hamarkadetan egindako lanak eta berreraiketak berrikusi ondoren, euskararen egoera zaharragoa ezagutzeko bidea ireki da. Hemen kokatzen dira Lakarraren (1995 eta hurrengoak) lanak, non Mitxelenaren berreraiketatik abiatuik, hots aintzineuskaratik, lehenagoko euskara edo aintzineuskara zaharra monosilabikoa dela baieztatzen den. Geroko lanak hipotesi hau indartzera etorri dira, esaterako Mikel Martinezen doktorego tesia (2006), lan honetan aitzineuskara zahar monosilabikoetik Mitxelenak berreraikitako aitzineuskara modernorako bilakabidea azaltzen da.

Aitzineuskara zaharraren garairaino iristeak, Mitxelenak *FHV*-n proposatutakoak baino aldaketa gehiago ezagutzea ekarri du. Esate baterako, Lakarrak (2008) hurrenkera kronologikoak finkatu gabe, hainbat bilakabide ezagun eta berri proposatzen ditu, hona hemen:

- | | |
|-----------------------------------|--------------------------------|
| a) $-n- > -h-$; | n) $a - o > o - a$; |
| b) $h_2 > h_1$; | o) $oa > a$; |
| c) $h_3 > h_2$; | p) $ao > o$; |
| d) $h - h > \emptyset - h$; | q) $\emptyset \rightarrow g$; |
| e) $h_3 > h_1$; | r) $-iu > -i$; |
| f) $-r... -r > \emptyset... -r$; | rr) $k- > -\emptyset$; |
| g) $b- > \emptyset-$; | s) $n- > -n$; |
| h) $-l- > -r-$; | t) $d - n > n - n$; |

⁸ 1. Eskura dugun materiala beste era batera aztertzea.

2. familiako beste hizkuntza bat aurkitzea.

3. mailegu zaharrak aztertzea.

4. aitzinhizkuntzak beste aitzinhizkuntza batekin konparatzea.

- | | |
|---------------------|-------------------|
| i) o – ei > e – oi; | u) pt > ut; |
| j) -r > -ø; | v) t – t > t – n; |
| k) e – au > eu – a; | w) r – n > n – r; |
| l) -n- > -n; | x) rn > R; |
| ll) ue > ui; | y) ea > e; |
| m) r – d > r – n; | z) ea > a; |

Euskararen bilakabide diakronikoan aurrera joan baino lehenago, beharrezko ikusten dugu orain arte proposatuta dauden bilakabideak (denak ezin, baino ahal direnak behitzat) hurrenkera kronologiko erlatibo batean finkatzea.

1.1. Euskararen kronologia erlatiboa

1.1.1. Ikergaiaren egoera

Mitxelenak hizkuntzalaritza historiko eta konparatua baliatuz aitzineuskara berreraikitze oinarriak finkatu zituenetik, lan ugari egin dira euskararen historiaren gainean, batzuk fonologia historikoari begirakoak, besteak morfologia historikoari begirakoak eta beste zenbait sintaxi historikoari. Hala ere, ez dugu *Euskararen gramatika historikoa* dei geniezaiokeen lanik, agian ‘gramatika historikoa’ zentzutik gertuen genukeen lana Trasken *The history of Basque* litzateke. Dena dela, gorago aipatu dugun kritika, kronologia erlatibogileek gramatika historikoei egindakoa, guk ere egin genezake. *FHV* edota *The history of Basque* liburuan, esaterako, bilakabideak soilik aurkezten dira, ez bilakabideok kronologia erlatiboa.

Azken urteetan, bereziki, 1995 urteaz geroztik (zehazkiago Lakarra 1995 lanaz geroztik), euskararen kronologia erlatiboaren beharra nagusitzen joan da. Ekar dezagun hona honen adierazgarri izan dadin Lakarraren aipu bat: “Alabaina, nago bakoitzean premiazoago bihurtzen dena zera dela, Benvenistek konparatista ororen egiteko nagusitzat ezarritako kronologiari heltzea, hain zuzen ere”.

Bada euskararen kronologia erlatiboak finkatzeko saio bat, bibliografietan agertzen bada ere, inoiz gutxi erabilia izan dena, Guiterek 1989an idatzi zuen “Elementos de cronología fonética del vascuence” hain zuzen ere. Strakaren 1956 eta

1953 lanetako kronologia aintzat hartuta, euskaraz Akitaniar izkripzioen ondoko garaietatik aurrera gertatutako bilakabideen kronologia bat egiten saiatzen da. Kronologia absolutu eta erlatiboaren arteko nahasketa bat da, Guiterek lan hau egin zuenerako *FHV* argitaratua eta osatua eta zuzendua bazegoen ere, ez zen Mitxelenaren berreraiketatan oinarritu kronologiak finkatzeko, bitxiena da ez duela izarñodun forma berreraikirik erabiltzen.

Strakak bere lanetan erromantzerako finkatutako kronologia abiapuntutzat hartuta euskarak erromantzeetik hartutako maileguak noizkoak izan behar duten zehaztu eta honen arabera bilakabidea lehenago edo geroago gertatu den zehazten du, jatorrizko hitzetan gertatu bilakabideez ari bada, beti lekukotutakoetan eta toponimoetan oinarritzen da. Pensadok (1983:20) aipatzen du berreraikitakorenganako desconfiatza dela eta, kronologia erlatibo tradizionalak beti lehen lekukotasunekin estuki lotuak daudela. Beraz, kronologia erlatiboek kronologia absolutuak izan nahi dute. Pensadok aipatzen duen kronologia erlatibo tradizioan horretan kokatzen da Guiteren lana, euskaraz gertatu diren bilakabide batzuk erromantzeetan gertatu diren bilakabideen data absolutuen arabera hurrenkeratzen baititu. Horrela, ondoko taulan aztertzen dituen bilakabideak datetan ematen ditu (1989: 800):

200	300	400	-----	1000	1100
p- > b-					
		nt >			
t- > d-	mp > mb	n > ø	nd	l > r	ll > l
k- > g-		nd > n			
mb > m			nn > n		

Euskaran gertatutako aldaketa fonetikoaren kronologia erlatiboaren gaineko hurrengo lana Matias Múgicak 1996an argitaratu zuen “Notas de fonética histórica y toponimia 1. Sobre cronología de los cambios fonéticos” dugu. Artikulu honetan, Múgicak euskarazko eta erromantzezko toponimoak aztertuz, euskararen garapen fonetikoaren informazioa lortu nahi du, batez ere euskararen kronologia erlatiboa ezagutzeko. Hemen ez du kronologia absoluturik egiten, oro har, baizik eta bilakabiden kronologia bat egiten du. Ondorio bezala, hurrengo kronologia hau ateratzen du:

- | | | |
|---|---|-----------------------|
| 1. Hitz hasierako herskarien galera | } | Dokumentazio aurrekoa |
| 2. Ozen aurreko ahostunketa | | |
| 3. $-n- > \emptyset$ -i aurretik eta $-gune$ -n | | |
| 4. $-r(t)z > -s(t)-$. | | |
| 5. $-l- > -r-$ | | |

-
- | | | |
|----------------------|---|----------------------|
| 5. $-l- > -r-$ | } | Dokumentazio ondokoa |
| 6. $-n- > \emptyset$ | | |
| 7. $*-N- > n$ | | |

Berriki Hualdek (2008) “Acentuación y cronología relativa en la lengua vasca” argitaratu du. Bertan zenbait gertakari morfonologikoren kronologia finkatzen du euskal hizkera batzuetako azentu motak aintzat hartuta. Horrela, esate baterako, ABS, ERG, DAT eta GEN formetako plurala sortzeko gertatu diren bilakabideak kronologikoki hurrenkeratzen ditu.

Lakarrak ere azken lanetan, bereziki “ $*h_3 > h_1$, $*h_2 > h_1$ eta horiei datxezkien zenbait fenomenoz” (2008) artikuluan hasperenarekin lotutako hainbat bilakabideren kronologia erlatiboa finkatzen du, honetaz gehiago arituko gara hurrengo atalean; hori dela eta, ez dugu hemen laburbilduko.

Orain arte, bilakabide fonologikoen kronologia erlatiboaz aritu gara. Hala ere, kronologiek ez dute zertan fonologikoak izan, morfonologikoak ere izan daitezke. Larry Trask zenaren omenaldi liburuan (Lakarra & Hualde, 2006), badira hainbat lan morfologia historikoari buruz zeinetan bilakabide morfologikoen kronologia erlatibo bat finkatzen den. Hauetariko bat Urgellen lana dugu, bertan aditz izenak egiteko atzizkien (-te, -tze, -(k)eta, -tzaite) bilakabidea, garapena eta hauen hurrenkera kronologia zein izan daiteken proposatzen du. Ondorioztatzen du, -te, -tze eta -(k)eta orokorrak izanik, 1. -te euskara komuna da lehena hedatu zena. 2. -tze euskara komuna da, baina -te ondoren hedatu zen. 3. (k)eta ere euskara komuna bada ere, honen gramatikalizazioa ez

da bera izan euskalki guztietan, hiruretan berriena litzateke, mendebalean sortutako berrikuntza.

Liburu berean, Manterola (2006) artikularen hedapenaz eta garapenaz hitz egiten du. Bertan mendebaldetik ekialderaino hedatu dela erakusten du eta artikularen sorreraren eta bilakabidearen kronologia bat ematen du. Urgellen eta Manterolaren lanak agertzen diren liburu horretan bertan, sintaxi historikoarekin lotuta Mounolek (2006) euskarazko aditz perifrastikoen azterketa egiten du, hauen bilakabidea nolakoa izan den azaldu eta formen kronologia bat ematen du. Beraz, badirudi, aditz perifrastiko zaharrenak **edin*, **ezan*, *egin* eta **iro* dira, hauen ondoren sortuko ziren *izan* eta **edun* laguntzaileak perifrasiak. Forma berriena litzateke burutugabekoa.

1.1.2. Euskararen kronologiarako ekarpena

n > h

Euskararen garapen diakronikoan izandako bilakabideak kronologikoki ordenatzen hasteko, hasperenerako proposatu diren erregelekin hasiko gara. Behin hauek ordenean jarrita, beste hainbat bilakabide hurrenkeratuko ditugu.

Mitxelenak erakutsi zigun (ik. *FHV*, 203) hasperena ondoko bost ingurune hauetan ager zitekeela:

- a) Hitz hasieran, bokal edo diptongo aurretik: *harri*, *haur*...
- b) Hitz barruan, bokal artean: *ahalke*, *lehoin*...
- c) Diptongo eta bokal artean: *auher*, *oihan*...
- d) Bokal aurretik eta *n*, *l* eta *r* ondoren: *sinhets*, *senhar*, *elhe*, *ilhun*, *urrhets*, *erhi*...
- e) Herskari ahoskabeen hasperendunak: *ph*, *th*, *kh*: *kheñu*, *pharka*, *apho*, *akher*...

Jatorriari begira, Mitxelenak (*FHV*, 208) balio etimologikoa duten hainbat *h* sailkatzen ditu: 1. Antzineuskarako *h* zahar batetik letorkeena. 2. Latinezko *f*- batetik

letorkeena. 3. Bokalarteko *-n-* zahar batetik letorkeena. 4. Hitz hasierako herskari ahoskabe edo bortitz batetik letorkeena.

Momentuz, 3.az, hau da, bokal arteko **-n-* batetik datorren hasperenaz arituko gara. Esan bezala, Mitxelenak bokalarteko **-n-* batetik eratortzen ditu hasperen batzuk⁹, Lakarrak (2008) Mitxelenaren bidea jarraituz, honek ez-etimologikotzat hartutako hasperen asko etimologikoak direla frogatu du berriki hitzen forma kanonikoaren azterketan oinarrituta.

Euskara historikoan, latinetik hartutako maileguetan eta euskarazko berezko hitzetan bokal arteko *-n-*aren galera garbiki ikusi dezakegu: lat. *(h)onōrem* > *ohore*, lat. *corōna* > *koroa*, lat. *anātem* > *ahate*, lat. *ballaena* > *balea*, lat. *(h)arēna* > *are(a)*, **seni* > *se(h)i* (akit. *SENI-*); **ardano* > *ardao* (> *ardo*, *arno*), hitz elkartuetan *ardan-*forma topatzen dugu: *ardandegi*; **onol* > *o(h)ol* (cf. Erronkariko *ōl*) (ik. Martinez 2006:84). Martinezek bere doktorego tesian aditzera eman zuen bezala (2006:84), **VnV* egiturako *-n-* horren galera erabat erregularra da bai maileguetan eta bai euskarazko berezko hitzetan ere, goraxeago ikusi dugun bezala. Hasperena mantentzen den euskalkiek, **-n-* hori zegokeen lekuan hasperena erakusten dute beti ere bigarren silaban badago, Martinezek zehazten duen bezala (2006: 85)¹⁰

Mitxelenaren arabera (ik. *FHV*, 302), **-n-*aren galera Akitaniako lekukotasunen ondorengoa da bertan *SENI-* lekukotzen baita, egungo *se(h)i*, *se(i)ñ*, *segi*. Nolanahi ere, XI. menderako bilakaera gertatua behar zuen *Aceari* bezalako lekukotasunak baititugu. Beraz, pentsa daiteke k.o. IV-X. mendeetan gertatuko zela bilakaera. Guitterrek (1989) IV.mende hasieran kokatu zuen **n* > *∅* bilakaera.

No puede uno equivocarse mucho situando *mb* > *m* a mediados del siglo III, *mp* > *mb* a finales del mismo siglo, *n* > *∅* a principios del siglo IV, *nd* > *n* en la primera mitad de aquel siglo, y *nt* > *nd* en su segunda mitad. (1989:799, azpimarratua gurea da).

⁹ Honek izan ditzakeen arazo tipologikoak konpondu ditu berriki Ivan Igartuak (2009) *n* > *h* bilakaera rhinoglottophiliari egotzita.

¹⁰ Aurrerago ikusiko dugu Lakarraren arabera hirugarren silaban ere gertatzen dela.

Martinezek ere (2006:86) Mitxelenaren bidetik *-n- > ∅ bilakaera Akitanierako izkribuen ondoren, baina XI.mendea baino lehenago gertatuko zela esaten du:

El cambio *-n- > -∅- (...) se ha tenido que producir después de la época del aquitano o euskera antiguo, donde se escribe varias veces *SENI-*, que corresponde a *vasc.mod. se(h)i* “criado”. Por otro lado, en líneas generales ya estaba cumplido cuando aparecen los primeros documentos medievales, en el siglo XI, cuando encontramos el antropónimo *Aceari* (< lat. *asinārium*, derivación de *asinus* “burro”), correspondiente a *vasc.mod. azeri* “zorro”, y también *ardum* “vino” y *araign* “pez” (< **ardano* y **arrani*), en la lista de palabras de Aimery Picaud.

Traskek ere (2008:25) bilakabidea goi erdi aroan gertatu zela esaten du eta XI. menderako bukatua zela. Lan berean bilakabidea ez gertatzeko testuinguru bat jartzen du, hau da, *-n- > ∅ ez da emango *i* baten ondoren badoa; izan ere, bokal honek /n/ sabaikaritu egiten baitu. Honen adibide bakarra ematen digu: lat. *pinum* > eusk. *piñu*. Datu gehiagorik ezean, ezin esan genezake testuinguru hau oztopo denik bilakabidea gertatzeko, mailegu berantiarra izan daiteke, oso zaharra balitz, ***bi(ñ)u* esperoko baikenuke (dena den, ez da oso berria, bestela -o esperoko genuke -u-ren lekuan). Bere liburuan ere, Traskek (1997:213) bilakabide honen salbuespenak liratekeen adibide gehiago ematen ditu: *eskaini* eta *ipini*. Traskek proposatutako erregela ordena, hau da, 1. **n* > ñ / *i*__ eta 2. *-n- > ∅ zuzena balitz, Mitxelenak *mihi* hitzarentzat berreraikitako **bini* berreraiketa (Arbelaiz, 1978:108), ez litzateke zuzena. Baina ebidentzia guztiek garamatzate pentsatzera *mihi*-ko hasperena sudurkari batetik datorrela (gogoratu Garibairen aipua: “Se ha de pronunciar algo con las narizes” (apud *FHV*, 48.or). Halaber, ez dirudi lehenengo *i* hori bigarrenkaria denik. Beraz, Traskek aipatutako murriztapen hori ez bide da guztiz zuzena. Salbuespena erakusten duten hitzen zerrenda hiru hauetara mugatzen bada, hitzez hitzezko azalpena ematea litzateke aukera egokiena. *Piñu*-rena esan dugu mailegu berriagoa izan daitekeela eta *eskaini* eta *ipini* formakuntza berriko aditzak izan daitezke. Hauen etimologiak **esku*+*gain*+*i* eta **edun*+*heben*+*i* badira hurrenez hurren, **emani*, **egoni*... baino berriagoak lirateke eta itxura guztien arabera, *-n- > ∅ ondoren sortuak eta, bide batez, -tu partizipio gilearen hedadura aurrekoa.

*-n- > ∅ bilakabidea IV.mendean gertatu zela baieztatzera letorke Chambon & Greub (2002) lana, zeinetan euskara ezertarako kontuan hartu gabe, gaskoieran gertatzen den *-n- > ∅ V. menderako gertatuta behar zukeela esaten baita. Onartuko bagenu euskara gaskoieraren sustratu izan zela eta bilakabide hau euskararen sustratuaren bidez garatu dela, pentsatzekoa da euskararen lehenago (IV.mendean beranduenez) gertatuko zela *-n- > ∅ bilakabidea.

N > n

Bokal arteko /n/ sistematikoki galtzeak sudurkariaren paradigma osoa irauliko zukeen, antzineuskarak zuen *N* eta *n* oposaketa galdu eta paradigmaren *N* bortitza bat gertatuko litzateke bokal artean. Sisteman *N* eta *n* zeudelarik, bata bortitza eta bestea ahula, azken hau galtzean, bortitza pasako zen honen lekua betetzera paradigmaren. Honek pentsatzera garamatza garai bertsean gertatuko zirela biak. Hau da, *-n- > ∅ bukatu eta handik gutxira gertatuko zela *-N- > -n-. Hala ere, ez dirudi garai bereko fenomenoek ari garenik. Esana dugu *-n- > ∅ IV. mende inguruan gertatu zela, baina XI-XII-XIII. mendeetan ugariak dira bortitza erakusten duten lekukotasunak: *Erretanna* (1025) *annaia* (1104), *annaye*, *Iohannis annaye* (1223) (*FHV*tik atereak) *Enneco* (1104) (OEhtik hartua)... Dena dela, XIII. mendean <n> soil batez ageri diren aldaerak ere baditugu: *anaia* (1229), *anaie* (1157) Datu hauek ikusita, pentsa genezake *-N- > -n- bilakaera XII. mendean hasi zela gertatzen.

Guiterek (1987:800) bilakabide hau 1000-1100 urte inguruan kokatu bazuen ere, onomastikak erakusten digu XI. mendean oraindik orain sudurkari bortitza badela. Hala ere, datu onomastikoez gain besterik ez dugunez, oso baieztapen arriskutsua da XI. mendean gertatu zela esatea, izan ere, gorago esan dugun bezala, grafia arkaizantea izan ohi da. Beraz, datu esanguratsuagorik ezean, pentsa genezake *-n- > ∅ ondoren gertatu zela *-N- > -n-, baina XI. mendera luzatu gabe.

Grassmannen legea, $h_3 > h_1$ eta $h_2 > h_1$

Mitxelenak (*FHV*, 211.or.) erakutsi bezala, gaurko euskalki hasperendunek ez dute onartzen hitz batean bi hasperen egon daitezen. Beraz, hitz elkarketan bi hasperendun elkartzen badira, sistematikoki lehena desagertu egiten da, Grassmannen legea gertatzen da hain zuzen ere (ik. Igartua 2002). Dena dela, Mitxelenak berak lekukotasun zaharrenetan oinarriturik murriztapen hau garai zaharrenetan existitu ez izana posible dela esan zuen: “Es posible que esta limitación no existiera en época más antigua” (*FHV*, 212.or.). Baieztapen honen indargarri dira Donemiliagako Kartularioan (1025 urtea, *TAV* 2.1.5., 25.or.) aurkitzen dugun herri zerrendan. Bertan, bi hasperen dituzten hainbat eta hainbat herri izen agertzen dira: *Harhazua*, *Harrahia*, *Hurizahar*, *Hagurahin* eta beste hainbat. Toponimo hauek erakutsiko ligukete XI. mendean oraindik Grassmannen legea gauzatu gabe zegoela.

Bestalde, berriki Lakarrak (2008) erakutsi du **-n-* batetik datozen hasperen asko, hirugarren silaban ere sortu direla:

Badira hainbat urte Joakin Gorrotxategik lehenik eta gero biok (Gorrotxategi-Lakarra 2001: 425) uste dugula Mitxelenak aitoren larriegia egin zuela beharrik gabe. Izan ere, baldin bagoaz berriro Mitxelenaren / h / etimologikoen lehen sailera, han esaten zaigu soilik / h / horiek lehenagoko *-n-* batetik datozela, ez ordea, NON diren kokatuak edota NON behar duten agertu, seguruenik logikoena sortu diren toki horretan bertantxe agertzea iruditu arren guztioi. Alabaina, *harea* < *arena*-k, demagun, erabat betetzen du *ohore*, *ahate*, *xahu* eta gainerakoek legez Mitxelenak emandako aldaketa-lege horren definizio hertsia; soil-soilik, sail horretako gainerako kideetan ez bezala, Mitxelenak aipatu ez zuen erregela bat, erantsi behar diogu: **h3 > h1*, hain zuzen. Hots, hirugarren silabaren hasieran sortutakoa lehen silabara aldatu dela...

Aurrerago **h3 > h1* erregelaren adibide gehiago ematen ditu: *herio* < **elino*, *hodei* < **e-don-i*, *hoge* < **bor-gen-i*... Ez da hau, ordea, Lakarrak lan honetan proposatzen duen bilakabide bakarra, **h2 > h1* bilakabide bat ere proposatzen baitu

euskararako. Hona hemen Lakarrak berak (2008:8) emandako hainbat adibide: *enuskara (>*ehuskara) > heuskara, *enazur (>*ehazur)>hezur...

Lakarrak (2008) hiru bilakabideon kronologia erlatibo bat ematen du:

1. $*h_2 > h_1$ bilakabideak dirudi zaharrena eta beste bi bilakabideak ($*h_3 > h_1$ eta $*h...h...>\emptyset...h...$) gertatu zirenerako, indargabetuta zegoela dirudi (ik. Lakarrak berak ematen dituen adibideak (2008:16): **hen-hun > ehun*, **han-non¹¹ > aho...* Ikusten denez, adibide hauetan, Grassmannen legea ematen da, baina ez $*h_2 > h_1$ legea..
2. Aurreko puntuan ikusi denez, kronologikoki bigarren lekuan Grassmannen legea dagoela dirudi, lege hau ematerako $*h_2 > h_1$ dagoeneko agortua baitzen aurreko puntuan emandako adibideek erakusten duten bezala.
3. Hirugarren lekuan $*h_3 > h_1$ bilakabidea dago: **hilherri > ilherri*, *hur- > *huh- uh- > i-/u-...*

Bilakabaide hauek guztiak IV. mendearen ondoren gertatuko ziren, esan nahi baita, $*n > h$ gertatu ondoren. Hau ordea ez genduke nahikoa, zehaztasun gehiagorik gabe.

Mitxelenaz geroztik (FHV, 215.or.) ezagun da hasperenaren kokapena euskaraz azenturekin estuki loturik doala eta ezin egon daitekeela hasperena azentuaren ondoren. Ikusi dezagun Mitxelenak dioena:

“Pero la aspiración no aparece dentro de la palabra en una sílaba cualquiera. Normalmente se presenta en posición inicial o al comienzo de la segunda sílaba, pero no, salvo excepciones bien determinadas, más adelante. Dicho de otra manera, cuando la palabra tiene tres sílabas, y es difícil encontrar una palabra antigua no compuesta que sea más larga, la aspiración no aparece entre la segunda sílaba y la tercera.” (FHV, 406.or.)

¹¹ Bi erroak elkartzean, elkarketa erregela bat gertatu bide da: $*-n > \emptyset$.

Aipu hau hasperen bakarra duten hitzetara eta euskalki modernoetara mugatzen da, baina esana dugu Grassmannen legea, hots bi hasperenetatik lehena galtzea Mitxelenaren arabera ez dela oso zaharra eta lekukotasunek ere hau erakusten dute. Azentuaren murriztapena ez dirudi indarrean dagoenik Grassmann gertatu aurretik, hala balitz lehena disimilatu beharrean azentuaren ondorengo hasperena galduko bailitzateke. Gainera Donemiliagako Kartularioan bertan dauden herri zerrendetan hasperena hirugarren eta laugarren silaban duten hitzak aurki genitzake: *Mendihil*, *Orengohin*, *Sarricohuri* eta beste hainbat. Beraz, Mitxelenaren hipotesia jarraituz, esan genezake, azentuaren arabera hasperenaren murriztapena modernoa dela.

**-n- > -h-* bilakabidearen ondorioz 3. silaban azentuaren ondoren sortuko litzateke hasperena. Lakarrak (2008) erakutsi du hirugarren silaba sortutako hasperenak lehen silabara (inoiz bigarrenera, **leone > lehoi*). Mugimendua badirudi azentuaren murriztapenak eragin duela. Hasperena azentuaren ostean egotea saihesteko bi aukera bakarrik leudeke 1. Hasperena galtzea. 2. Hasperena azentuaren aurrera mugitzea, hots, ezkerrera mugitzea. Dirudienez, hau da euskaraz gertatu dena.

****L > l eta *l > r***

Euskararen kontsonantismoaren bilakabideaz hitz egitean, askotan, **N > n* eta **n > h* bilakabideak **L > l* eta **l > r* bilakabideekin erkatu izan dira. Badirudi bietan antzeko fenomenoek aurrean gaudela, hau da, fortis-lenis oposiziodun sistema batean, non ahula galdu edo beste kontsonante batean bilakatzen den eta honek utzitako lekua fortisak betetzen duen ahultzen denean.

Antzeko bilakabideen aurrean egonik, pentsa genezake denboran ere garai bertsuan gertatuko direla. Esana dugu, **n > h* bilakabidea IV. mendean gertatuko zela eta **N > n* mende batzuk geroago, XII. mende inguruan. Guiterek **l > r* bilakabidea 1000 urte ingurua gertatu zela zehazten du, Mitxelenak (*FHV* 312) dioenez, bilakabidea gertatuta dago lehenengo lekukotasunetarako, hots 1025 urterako. Traskek (2008:29), ere, esaten du goi erdi aroan gertatu zela, hau baieztatzeko zenbait toponimotan oinarritzen dira *TAV*en irakur daitekeenez, 952 urtean *Ulibarrilior* daukagu eta 1025ean

Hurizahar, Hurivarri, Huribarri, Huriarte. Dirudienez, 952 eta 1025 urte bitartean gertatu zen bilakabidea. Hala ere, toponimo bakar batez ari garenez, baieztapen ausartegia bide da. *Ulibarrilior*-eko bigarren *l*-k aldaketa ez jasatea *lior* hitz aske bezala ere erabiltzen zelako izan liteke. Lehena ez bilakatzearen arrazoia ondoan duen dardarkari bortitzak eragindako disimilazioa izan liteke.

$*L > l$ bilakabideak $l > r$ baino beranduago gertatu behar izan zuen bestela ez genuke fortisetik datorren bokal arteko albokaririk. Fonologia sortzaileko hizkera erabiliz, biak sudurkariekin lotutakoak bezala, *counterfeeding* erlazioan daude. Bien arteko denbora tartea zenbatekoa den ezin genezake zehaztu, Guiterek azaltzen duenez (1989:798) bi aldaketen artean belaunaldi bateko aldea egon behar du bigarrenaren emaitzan lehen aldaketa eragin badezake (baina, jakina, ez bada gertatu). Strakak ere antzeko zerbait esaten du (*apud* Pensado 1983: 27-28), hau da, belaunaldi bat dela aldaketen arteko gutxiengo denbora. Strakari egindako kritika bera egin dakioke Guiteri, hots, 1. aldaketak denboraren ardatza jarraitu behar dute; 2. Berrikuntzarik gertatzen ez den aldiak egon daitezke. 3. Garapen batzuk beste zenbaitek baino gehiago iraun dezakete. 4. Garapen zenbait elkarrekin bizi daitezke. Beraz, aldaketen eta belaunaldien arteko erlazioa ez da pertinentea (Pensado, 1983:28-29).

Beste daturik ezean, $*n > \emptyset$ bilakabidearen garaikide gudukela esatea ez litzateke gehiegitxo, nahiz eta oraingoan ez dugun gaskoieraren laguntzarik, sudurkariekin gertatu zen paradigma aldaketa bera daukagu eta biak batera gertatu izanak ez dirudi arrazoa..

Badira lekukotasun bitxi zenbait $*l > r$ bilakabidea erakusten ez dutenak: Ibarguen-Cachopinen (IC) kronikako hiztegiñoan (cf. Arriolabengoa 2008:138) *aingula* ‘ancora’ irakurtzen dugu, egungo *aingura*, aldiz, *ayzcora* eta *ainguira* irakur ditzakegu eta hauetan $*l > r$ gertatua dela ikusten dugu. Badira lekukotasun zenbait gehiago *OEH* ikus daitezkeenez, $*l > r$ erakusten ez dutenak: **zelo** (Dv (V-m, G)), **selo** (Dv (V) [...]) Lrq (zelü) ‘zeru’ esateko. Zaila genuke azalpen orokor oso bat ematea ‘salbuespen’ hauek azaltzeko: egokiago da, dirudienez, kasu konkretuen arabera azalpen bat

bilatzea. *Zelo* etab.en kasuan, esaterako, pentsa genezake elizako hizkuntza denez jatorrizko ahoskera mantendu nahi izan zutela.

Eta beste

Ikusitakoaren arabera, lehen begiratuan salbuespentzat har daitezkeen **ardano* ‘ardo’ eta **arrani* ‘arrain’ formek ere zer esana badute euskararen kronologia erlatiboan. Ikusitakoaren arabera, **ardano* > ***ardaho* > ***hardo* eta **arrani* > ***arrahi* > ***harrai* genituzke, baina ez dira inondik inora zuzenak. Lakarrak (2008) **ardano* eta **arrani*-ren azterketa morfologiko sakonago bat eginez, **e-da-ra-dan-o* eta **e-da-ra-din-i* berreraikitzen ditu. Hitz hauetan espero bezala **-n-* > *h* ematen da laugarren silaban, baina hasperena ez da lehen silabara igarotzen. Beraz, 1. ***h4* > *h1* bilakabidea ez da ematen euskaraz eta 2. **h3* > *h1* bilakabidea **ardano* eta **arrani* hiru silabako bihurtu baino lehenago garatu zen.

Beraz, **edaradano* **ardano* bihur dadin lau bilakabide ditugu, hauetarik bi aipatzen ditu Lakarrak bere zerrendan eta bat zerrendan ez baina lanean aipatzen du: **e...a... > a...a...*, **d-n > n-n*, **nr > R* eta Lakarrak zerrendan ematen ez duen eta bitan gertatzen den **-a- > ø*, ziurrenik bokal azentugabea. Bokal erorketa honek, beraz, sudurkaria hasperendu aurrekoa izan behar du bestela **ardano* eta **arrani*-ren kasuan ez baikenuke /r/ bortizik. Bestalde, **e-a > a-a* asimilazio bilakabideak bokal erorketa baino lehenagokoa izan behar du.

Baditugu hainbat aditz eta euren etimologia berreraiki zeinetan ez baita proposatzen **d-n > n-n* bilakabidea, horretarako testuingurua izan arren: **edin > jin*, **edino > jo*, **edadun > jaun...* Hemen **d > ø* bilakabidea gertatu dela ikusten dugu. Bi bilakabideak gertatu direla onartu eta konponbide bila hasiko bagina, *e-* aditzak sortzeko aurritzia indarrean egon zen bitartean, lehenik *d-n > n-n* asimilazioa gertatuko zela lehenik eta hau amaitzean **d > ø* gertatu zela proposatzea izango litzateke bide bat. Hala balitz hurrenkera, **e-a > a-a*, azken hau gertatu ondorengoa da, bestela, ez balitzake **ea- > ja-* gertatuko.

Beraz, aipatutako bilakabideen hurrenkera honakoa genuke:

1. $d-n > n-n$
2. $d > \emptyset$
3. $e-a > a-a$
4. $ea- > ja-$
5. bokal azentugabearen erorketa
6. $nr > R$
7. $*n > h$
8. $h_2 > h_1$
9. Grassmannen legea
10. $** \text{ ' } h_ \text{ hau da, azentu ondoko hasperenaren murriztapena}$
11. $h_3 > h_1$

Finkatu dugun hurrenkeratik abiatuta, Lakarrak (2008) proposatzen dituen beste hainbat bilakabide ere finka ditzakegu. Bilakabide zerrenda horretan aipatzen dituen $b- > \emptyset-$ erregela, esaterako, hasperenen lekualdatzeak baino lehenagokoa behar du nahitaez, bestela ezin mugitu baitzitekeen hasperena hitz hasierara *hoge*i < **borgeni* eta *hezur* < **bernazur*-en kasuan. Datu gehiagorik ezean, ezin zehatz dezakegu $*-n- > \emptyset$ edo $b- > \emptyset-$ zein izan den zein baino lehenago, baina horrek ez du inolako arazorik sortzen momentuz, ez baitute elkar eragiten. Bestalde, $*bernazur > *enazur > *ehazur > *heazur > hezur$ bilakabideak erakusten du $*rn > R$ bilakabidea eman dela lehenik, hau eman ondoren $*-r... -r > \emptyset...-r$ bilakabidea eta azkenik $*-n- > \emptyset$, beste hurrenkera batean, ez baikenuke gaur egungo forma izango.

Halaber, zenbait aditzen etimologiak hartuta (**ebani > ebai*, **elino > herio*, **edoni > hodei/hedoi...*) ez bide da ausartegia esatea $-i$ -dun partizipioak $*-n- > h$ gertatu baino lehen sortu zirela, dakusagunez partizipio hauetan ere bilakabidea gertatu baita eta ez dugu $-i$ -z bukatzen den partizipioaren errorik $-n$ -z bukatzen denik (cf. Trask 1990, laburpena bat Trask, 1997).

1. $b- > \emptyset-$ } Ezin bide dugu bi hauen hurrenkera zehatza finkatu.
2. $d-n > n-n$
3. $e-a > a-a$
4. $ea- > ja-$
5. bokal azentugabearen erorkea
6. $rn > R$
7. $-r... -r > \emptyset...-r$ } Ez dute elkar eragiten
8. $-i$ partizipiodun aditzak sortzea
9. $*-n- > h$ // $*-l- > r$
10. $*-nn- > -n$ // $*-L- > l$
11. $*h2 > h1$
12. Grassmannen legea
13. $**' _ h_$ hau da, azentu ondoko hasperenaren murriztapena
14. $*h3 > h1$

Martinezek lehenengo (2006) eta gero Lakarrak (2006c) azaldu duten e-aurrizkidun aditzetan *eho* salbu ez dagoela errorik *h-z* hasten denik, aldiz, erroa herskari ahoskabez denetan, hasperenduna da beti hasperena mantentzen den eremuan. Lakarrak bere lanean ‘bitxikeria’ honi kronologiaren bidez ematen dio konponbidea. Martinet (1955) eta Mitxelena (1957a) jarraituta, onartuko bagenu euskaraz $*kh > h$ bilakabidea gertatu dela, hau da, hitz hasierako herskari hasperenduna hasperen egin dela, $*e-CVC$ gisako aditzak sortu ondokoak behar dute izan. Bestalde, ez dirudi *e-* aurrizkiari CVC errore sortutako erreduplikaziorik gehitzen zaionik. Beraz, erredublikazioa izenak sortzeko forma bazen eta *e-* aditzak sortzeko, ez dirudi erreduplikazioa gertatu ondoren *e-* emankorra zenik. Beraz:

1. $*e- +CVC$
2. *Erreduplikazioa*
3. $*kh- > h.$

1.1.3. Amaiera

Lan honetan, ikusi denez, euskararen kronologia finkatzeko saiakaera txiki bat egin da, baina ez da inondik inora nahi edo behar hori asebetterik geratu. Aurrerago, baina luze gabe, ikerketako sakonako eta luzeagoak beharko ditugu.

Kronologiarekin batera, honen osagarri eta lagungarri beharrezko dugu irizpide linguistikoetan oinarrituriko euskarazko periodizazio oso bat egitea. Periodizazio bat egitea, zeinetan garaiko hizkuntz ezaugarriak, garaian gertatzen diren ezaugarriak... zehaztuko diren. Honek, noski, lan handia eta luzea eskatzen du.

Ez hori Dialektologia diakronikoari bultzada bat ematea ere ez litzaiguke gaizki etorriko, egungo euskalkien sorrera eta garapena ezagutzeko, finean, guk goraxeago proposatu ditugun aldaketak euskalki guztietan agertzen badira, pentsa genezake edo 1. EBZren aurreko aldaketa bat da edo 2. Banaketa dialektalaren ondoren berrikuntza komunak izan dituztela euskalkiek. Ekonomikoena EBZ aurrekoa dela pentsatzea litzateke, baina ikusi ditugu bilakabide batzuk (hasperenarekin loturikoak) XI. XII. mendeetan eman direla, hots, EBZ banatu eta bostpasei mende beranduagokoa. Horrelako kontuetan gehiago sakontzea eta horrelakoak gehiago aztertzea mereziko lukeelakoan gaude. Nolanahi ere, egun behar beharrezko duguna, dagoeneko gorago aipatu dugun etimologia da, ezinbesteko dugu euskarazko hiztegi etimologiko bat.

Bibliografia

- Alinei, M., 1992, "The problem of dating in historical linguistic" *FLH* 12, 107-125.
- Anderson, J.M., 1973 [1977], *Aspectos estructurales del cambio lingüístico*, Editorial Gredos, Madril.
- Anderson, S.R. 1978. "Historical change and Rule ordering in phonology", in *Recent Development in Historical Phonology*, Fisiak (arg.). The Hague. Mouton, 23-41.
- Arbelaiz, J.J., 1978, *Las etimologías en la obra de Luis Michelena*, Kardaberaz, Tolosa.
- Campbell, L., 1998. *Historical Linguistics. An introduction* [2. edizioa, 2004an], Edimburg: Edimburg University Press.
- _____, 2000, "Time perspective in linguistics" in Renfrew, C.; McMahon, A.; & Larry Trask (arg.) 2000, 1. liburukia, 3-31.
- Chen, M. 1976. "Relative chronology: three methods of reconstruction" *Journal of Linguistics* 13, 209-258.
- Dolgopolsky, A., 2000, "Sources of linguistic chronology" in Renfrew, C.; McMahon, A.; & Larry Trask (arg.) 2000, 2. liburukia, 401-409.
- Guter, E. 1989. "Elementos de cronología fonética del vascuence". *ASJU* XXVIII-3, 797-800.
- Hualde, J.I., 2008, "Acentuación y cronología relativa en la lengua vasca" *Oihenart* 23, 185-198.
- Hock, H.H. 1986. *Principles of historical linguistics*. Berlin:Mouton de Gruyter.
- Hoenigswald, H.M., 1960, *Language change and linguistics reconstruction*, The University of Chicago Press, Chicago-London.
- _____, 1974 "Relative chronology. Notes on the so-called Intermediate Stages. *XI International Congress of Linguistics*, Heilman (arg.). Bologna: Il Mulino, 369-373.
- Igartua, I. (2002), "Euskararen hasperena ikuspegi tipologiko eta diakronikotik" in Artigoitia, X., Goenaga, P & J.A. Lakarra (arg.) *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P.G. de Rijk*, ASJUren gehigarriak, XLIV, 366-389.
- _____, (2006), "Del origen de la aspiración como elemento morfológico en vasco" in Lakarra, J.A. & J.I. Hualde (arg.) (2006).
- _____, 2008, "Historia abreviada de la aspiración en las lenguas circumpirenaicas". Euskaltzaindiaren XVI. Biltzarra (Iruña). Inprimategian.

- _____, 2009, “La aspiración de origen nasal en la evolución fonética del euskera: un caso de rhinoglottophilia”. *ASJU*-n argitaratzeko lana.
- Iverson, G.K., 1995, “Rule ordering” in J.A. Goldsmith (arg.), 1995, *The Handbook of phonological theory* Blackwell reference, Oxford.
- Kuryłowicz, J., 1962, “On the methods of internal reconstruction”, *9th International congress of linguistics*, Mass, Cambridge, 9-31.
- _____, 1973, “Internal reconstruction” *Current trends in linguistics* II. Mouton, The Hague, 63-92.
- Lakarra, J.A. (1995), “Reconstructing the Pre-Proto-Basque-Root” in Hualde, J.I., Lakarra, J.A. & Trask, R.L (arg.), *Towards a history of the Basque language*. John Benjamins Publishing Company, 189-206.
- _____(1997), “Gogoetak aitzineuskararen berreraiketaz: konparaketa eta barneberreraiketa”, *ASJU*, XXXI-2.
- _____, 2002. “Etymologiae (Proto)Uasconicae LXV”, in X. Artiagoitia, P. Goenaga & J. A. Lakarra (arg.), *Erramu boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*, 425-442. (*ASJU*-ren gehigarriak, 44). Bilbo: UPV-EHU.
- _____, 2006a, “Notas sobre iniciales, cambio tipológico y prehistoria del verbo vasco” in Lakarra & Hualde (arg.) 2006, 561-621.
- _____, 2006b, “Protovasco, munda y otros: Reconstrucción interna y tipología holística diacrónica”, *Oihenart* 21, 229-322.
- _____, 2009a, “*h3 > h1, *h2 > h1 eta horiei datxekien zenbait fenomeno”. Argitaragabea.
- Lakarra, Joseba & Jose Ignazio Hualde (arg.), 2006, *Studies in Basque and historical linguistics in memory of R.L. Trask*-R.L.Trasken oroitzapenetan ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritza historikoaz, *ASJU* XL: 1-2-.
- Lass, R., 1997, *Historical linguistics and language change*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Lausberg, Heinrich, 1976 [1963], *Lingüística románica*, Editorial Gredos, Madrid.
- Manterola, J., 2006, “-a artikulua definituaren gainean zenbait ohar” in Lakarra & Hualde (arg.) 2006, 651-676.
- Martinet, A. 1974 [1955]. “La reconstrucción estructural: las oclusivas del vasco”, in *Economía de los cambios fonéticos*, Madrid: Gredos, 524-550

- Martinez, Mikel (2006a). *El consonantismo protovasco*. Tesi argitaragabea.
- _____. (2006b). “Aitzin-euskararen kontsonantismoa”. *FLV* 103.451-472.
- Menéndez Pidal, Ramon, 1973 [1904], *Manual de gramática histórica española*, Espasa-Calpe, S.A., Madril.
- Mitxelena, K. (1957), “Las antiguas consonantes vascas”. Berrarg., *SHLV*, 166-189.
- _____. (1961 [1990]). *Fonética Histórica Vasca*. *ASJU*ren gehigarriak.
- _____. 1964, *Textos Arcaicos Vascos*. Berrarg. 1990, *ASJU*-ren gehigarriak, XI.
- _____. (1974), “El elemento latino-románico en la lengua vasca”, *Fontes Linguae Vasconum VI*, berrargitaratua *PT*-en, 195-219.
- _____. (1987), *Palabras y textos [PT]*, Vitoria-Gasteiz, UPV/EHU.
- _____. (1988), *Sobre historia de la lengua vasca [SHLV]*, J. A. Lakarra (arg.), *ASJU*-ren Gehigarriak 10, Donostia, 2 lib.
- Mounole, C., 2006, “Quelques remarques à propos de l’histoire des périphrases basques”, in Lakarra & Hualde (arg.) 2006, 723-738.
- Múgica, M., 1996, “Notas de fonética histórica y toponimia 1. Sobre cronología de los cambios fonéticos”, *ASJU* 30:1, 219-238.
- Mulle, H.F. 1929, *A chronology of Vulgar Latin*. Beiherft 78, *Zeitschrift für romanische Philologie*.
- Oñederra, M.L., 2004, *Fonetika fonologia hitzez hitz*, EHUKo argitalpen zerbitzua,
- Pensado, C. 1983. *El orden histórico de los procesos fonológicos*. Salamanca: Caja de Ahorros eta M.P. de Salamanca.
- _____. 1984. *Cronología relativa del castellano*. Salamanca : Ediciones Universidad de Salamanca.
- Posner, R. 1974. “Ordering of historical phonological rules in romance”. *Transactions of the Philological Society*, 79-127.
- Renfrew, C.; McMahon, A.; & Larry Trask (arg.) 2000, *Time depth in historical linguistics*, 2 liburuki, The McDonald institute for archaeological research, Cambridge.
- Trask, R.L 1996. *Historical Linguistics*. [2.argitalpen zuzendua], London: Arnold.
- _____. 1997, *The history of basque*. Routledge, Londres.
- _____. 2000, “Some issues in relative chronology” in Renfrew, C.; McMahon, A.; & Larry Trask (arg.) 2000, 1. liburukia.

Urgell, B., 2006, “Para la historia del sustantivo verbal vasco”, in Lakarra & Hualde (arg.) 2006, 921-948.

Väänänen, Veikko, 1971 [1967], *Introducción al latín vulgar*, Editorial Gredos, Madrid.